29garren URTEA. / 29e ANNÉE. | Nº 1461

LE NUMÉRO : 5 CENTIMES

ORZIRALEA APHIRILAREN 30ean / VENDREDI 30 AVRIL | 1915

Herriaide guztietan toki onak badira;
Bainan bihotzak dio: zoaz Eskual-Herrira

ESKUALDUNA

JOURNAL BASQUE-FRANÇAIS HEBDOMADAIRE

ABONNEMENTS
Pays Basque..... 4 fr. par an.
France..... 8 fr. —
Étranger..... 10 fr —

REDACTION ET ADMINISTRATION
69, Rue Bourneuf — BAYONNE — Téléphone 2.20

L'Administration décline toute responsabilité en ce qui concerne les annonces.

Eskualdunak eztu on egiten hemen agertu « annonces » direlakoez.

PUBLICITÉ
Chronique locale..... 1 fr. » » la ligne
Réclames..... 0 fr. 60 —
Annonces..... 0 fr. 40 —
Les insertions ne sont admises que sous réserves

Lurraren itchura

Lur lan hemen, gure toki hautan, gibelatuez mintzo baikira, han ginuke, han urrun, alhor eta pentze, sagardi, barat e, larre, zapilkatu porrokatuak direnetan, it uli bat egin behar, ikusteko, zer hein duten hango lur irauli eta iraultzekoek.

Hangoak ikus-eta, nigar gutiago egin ginezake hemengoez.

Hemen zerbeit egin dezakete beso guziez gabetuak ez diren etchetan, zahar adin batetarik goitikoek, osoki eri ez diren ber; mazteak eta seme soldadogoako hcinerat heltzekoak lagun.

Erreformatuetan ere badire zonbeit, hatsaren gainean lan pochi baten egiteko hein bat oraino on.

Auzoek auzoeri ahal duten guzia eginez, edo nolazpeit, artho landa guti geldituko da, erain gaberik.

Ez litake behar gelditu lur hutsik, elgarrentzat holakoetan, batzu bertzentzat urrikalmendutsu izanez, ahal den hein guzian.

Aski goiz ernatzea eta hurbiltzea batzu bertzen ganat, galdearen beha egon ere gabe, litake zuhurtzia eta gizontasun, ororen onetan.

Gosetea bederen urrun atchik dezagun gerla urthe huntan eta hunen ondoko urthetan oraidanik.

Batzuen kaltea orok jasan beharko dugu berdin goiz edo berant; eta halaber ororen onetan izanen da elgarri egin ongia, bakotcha bereaz baizik ez orhoiturik ere.

Eta karitatea, elgarren ganako atchikimendua, giristinotasunak erakasten daukun aneiatasuna noiz ager, noiz susta gutartean, aurthen ez egitekotz?

Ez bakarrik auzo adichkidek, bainan luzaz elgarrentzat hotz, ba eta etsai izanek berek ahantzi behar ginituzke ohiko janhiza eta herrak oro.

Deus hoberik, ez ederragorik ez litake, behin, gerlak dirauno. Eta gero, gerla ondoan, zeren beharra ez dugu oraino izanen, ziloen tapatzeko, zaurien sendatzeko, elgarri biziaren beiratzeko sarri ?

Ez egon bakotcha bere kuskuan iribilkaturik; jali elgarretarat; begi atchik eta esku batzuek bertzen bazterrari.

Behin arthoak egin, gero belharrak, elgar lagunduz, igurikiz elga konfiantiarekin, bakotcha bere ari gabe aztzinka; eta khar gehiagorekin, hobeki egin n dire lanak.

Zer atsegina, hor harat joan gizonentzat, berri onen ukhaitea hemendik! Etsaiaren garhaitzeko indarra, b eta ososuna bera doblatuko diozkate hemengo berri onek.

Hor berean, z abantaila, bertzeak bertze !

Dezotegun atchik hemen geldituek alhorreri, pentzeri, aberetegieri, beren itchura gozo ederra; bardin eder eta gori ez baditake, ahal den guzia.

Miseriari khendua khen; ez uda huntakoari bakarrik, bainan gerokoari; gerlaren ondorioak arin ditzagun eta ezti ahalaz.

×

Hemengo gure lur, etche inguru eta barnetarik altcha goiti begiak eta beha orok han harat, urrun.

Gerla toki hetan, gure frantses aneien eta Beljikanoen etchetan, lurretan, zer itchura duten ja, eta zer sarraskiak ja orai, — zer diot? ja zortzi, bederatzi hilabethe huntan, *ikus* deza un urrundanik.

Beren begiz hango bazterrak ikusi dituztenek diotenaz, ez omen baititake asma, zertaratuak diren. Hainbertze jende hil, edo ahal duten tokietarat ihesi joan! Hainbertze hiri et herri, etche bat chutik oso dagonik ez baita gelditzen.

Lurra bera, dena zilho, dena erreka itsusi, kanoi ukhaldik rratua, begiak eta mathelak puskaturik idoki g zon kolp tu baten begitartea bezala, zaurthua, behingo kolpatua lurra; deus onik ez aurthen; heldu den urthean ere ezin emanezko h ineraino kolpatu, Frantziako lur gaizoa, gu guzien hazle lur ama! Bulharrak mozturik, urrakaturik dagola, iduri sekulakotz agortua, hiltzerainokoan larrutua.

Orhoitu hango lurraren itchuraz, eta oro ororenak girela, hemengo bazterraren kara hitsak ez dauku hala joko begia, bereziki hemengo lurrari guhaur jarraikitzen bagaizko, lotsaz gelditu gabe lanari ukho, buru eta beso gehienak, hoberenak hor harat joanak dituguiarik, Frantziako lur on, lur maitearen zauri minenen hesterat, lehenbailehen, Jainkoa lagun.

Berriak egunka

Astezken apirilaren 21ean

Frantses eta Beljikano gizon choriek *bomba* ukaldika etsaiaren atherbe handi eta lantegi batzu andeatu dituzte.

Itsasoan rusoek jauzarazirik *torpilla* tiroka, zolarat doazi Turkoen hamar untzi handi.

Ortzecgun, 22an

*Ypres*eko aldean anglesak alemana ukho dauka egun. *Reims* hiriko inguruetan artilleria errabian ari da bi aldetarik.

Saint-Mihiel-etik hurbil, Apremont-eko oihanean, bi erreka sail elgarri darraizkotenez jabetzen gira.

Atsacen aitzinatuz goazi.

Karpathes mendietan otrichianoek bide guziak moztuak dituzte. Han daude tente, azken zigorradaren beha.

Ontzirale, 23an

Leihorrezko gerla gero-ta hobeki deramagularik, itsasoz, *Dardaneles* deithu ur arteka hertsi luze hartan, aro gaichtoak gibelaturik ginauzkanak, berriz lotzen ari gitzazko lanari azkarki. Ur bazterretako hiri batzuek egundaino ez dute hartu holako zafraldirik.

Otrichianoek azken uztarrak dituzte Rusia aldeko mendietan.

« *Bois d'Ailly* » deithu oihanean zazpi ehun metre lur zilo errekaz nausitu gira.

Ypres-etik harat, iphar aldean, etsaia *bomba* berri, gizona ithotzen duten batzuekin hasirik, gune batean lur izpi bat hustu behar izan dugu, bainan ordainez jabetu gira bertze hanbertzez hurbil.

Ez du zeren etsaiak igurik, ukho egin dezogun. Ez gira hartan, ez gu, ez gure lagunak.

Larumbat, 24an

Ypres hiritik iphar aldean, *Yser* urhandiaren eta *Puelkapelle*-ko bidearen artean, gure lerroak aphur bat gibel-arazi zituen herenegun etsaiak. Huna nola : khe hori lodi bat igorriz, iphar haizeari, esker, gure soldadoen gainerat; khe pozoindatu bat, gizonen ithotzeko heinerainokoa, bi kilometra eremetan.

Atzo berriz guretu dugu galdu eremua; beljikanoen eta anglesen laguntzarekin egun ere aitzinatuz goazi.

Les Eparges mendi kasko hura khendu nahiz eta bertze bat *Tête-à-vache* deithua, oldartu zaizku, gaitzeko oldarrean; ba eta jin bidez itzuli ere, on bazitzeien.

Hil hanitz egin diogu etsaiari.

Bazterrak bero dire, bero biziki hemen. Suari su; kanoi ukaldiari kanoi ukaldia.

Igande, 25ean

Beljikan, beljikanoekin eta anglesekin bat eginez, eskuz esku badihardukagu.

Etsaia bethi ari zauku, ithotzen duen aire gaichto hartarik bota eta bota. Ez aski, anglesen, ez gure izitzeko. Errabian dela ageri du alemanak; bainan egun hartu abantzua bihar gal-arazten diogu. Partida zailak dituela garbaitzeko, ikhas beza bere gostuz.

Astelehen, 26an

Etsaia ditaken hatsik gaichtoenean dugu Beljikan, guk eta anglesek. Anglesek eta guk badaukagu egun, aitzinatzerat utzi gabe. *Les Eparges* mendi haren berriz beretzea ez dezakela etsi, ageri du. Zalaparta guziak alfer doazko. Gizon hanitz galtzen du bethi.

Asteari, 27an

French deithu angles aitzindariak dio, etsaiak eztuela neholere anglesaren gurekilako lokarria hausten anai, ez ahako.

Alta indar onik egiten du zonbeit egun huntan, zilhatu nahiz. Alemanak ez aski, otrichiano andana bat ere bazen ethorria, rusoak behin utzirik, hunat, gure lehertzera.

Berak dire lehertu; hanitz hil; hanitz kolpaturik gibelerat joan, trein-tarako.

Aleman *Zeppelin* aireko tresna hetarik bat andeatu diotegu. Bat gutiago bethi.

Turkiako alderat joan soldadoak badoazi aitzina, chdeari hurbilduz. Itses untziak berriz hasiak ditugu, aroa onthurik, *Dardanelles*-etako leihor hirieri kanoi ukaldika.

Oraikotik sar baginite han harat? Agian ba!

NOIZ ARTE ?

Aspaldiko egunetan, ba othe da galderik hain errechki eta hain maiz egiten dugunik, nola hauche : « Noiz arte iduritzen zaitzu iraunen duela gerla izigarri hunek ?»

Hori da guzien grina handia eta naski gurea bezenbat edo gehiago, gutarik urrun joanak ditugun soldado gaichoena.

Noiz arte iraunen duen gerlak? Nehork ez daki chuchen, Jainkoak beizik. — Zer! nehork ez jakin! *Joffre*, jeneral nausiak ere, ez othe? — Ez eta hunek ere. Badaki ba naski noiz eta non eginen duen gudu handia; badaki ere behar bada gudu hortan nausituko dela.

Bainan gero zer ditezken nausituko den gudu horren ondorioak, ez detzazke jakin chuchen. Eta hori jakin gabe, zer erran diteke gerlaren iraupenaz ?

Hainitzek uste dute, ogi eskasiak bortchatuko dituela laster Alamanak amor emaiterat. Huna zer zautan hortaz erraiten Alamanian ibilia den jaun batek : ogirik batere jan gabe errechki bizi direla Alamanak.

Hango ostatu handienetan, jan izan du maiz Alamanekin. Nahiz bazen ogia nahi zutenentzat, bakarra zen mahainean ogiari lotzen zena.

Alamanek, ogi orde, lur-sagar egosiak hartzen zituzten. Lur sagarra da Alaman giehenen ogia, Eskualdun hainitzen ogia artoa den bezala. Beraz Alamanek ez dute hainiz pairatuko, ogia eskasturik ere, balin badute lur-sagarra.

Eta lehenago erran izan dautzuet, zein ausarkian lur-sagarra emaiten duten Alamaniako lurrek.

Kazeta egile batzu jostatu nahi dire, eta jakinik badirela beti zozoak gauzarik bitchienen sinhesteko, ari zaizkigu nork ezin sinhetsizkoenak amets.

Orai duela zenbeit aste, kazeta batean agertu da hauche : Haur gazte bat, sortzez mutua, eri gaizki zen. Horra non, azken hatsa emaiteko heinean, erraiten dituen arras garbiki hitz hauk : gerla bururatuko dela uztailean. Hori izan omen da haur mutu horren lehen eta azken solasa.

Berehala bertze kazeta hainitzek ere errepikatu dute miragarrizko gauza hori, atsegin baita beti bitchikeria zerbeiten atzemaitea kazetako choko baten bethetzeko. Eta zenbat jende, tetelekeria hori iretsi dutenak gogotik, eta sinhetsi Ebanjelioko solasak baino hobeki!

Huna bertze holatsuko bat, bertze kazeta egile batek berrikitan amestua, eta laster gero kazeta hainitzetan agertu dena :

Goiz batez, ohetik jeikitzeko tenorean, zortzi urthetako haur bat oihuz karraziaka hasten da. Ama badoako berehala eta galdetzen dio zer duen hola oihu egiteko. Haurrak ihardesten dio, Ama Birjina agertu zaiola eta erran diozkala hiru gauza : bera hilen dela laster, aita kolpatua izanen dela gerlan, eta gero gerla bururatuko maiatzean.

Bizpahiru egunen buruko berria heldu da aita kolpatua dela; eta, aste bat gabe, haurra hila zen. Bi gauza hoik hola gertatu direnaz geroz, segur hirugarrena ere gertatuko dela. Beraz gerla bururatuko da maiatz huntan.

Bazinakite zenbatak diren hori buruan hain barna sartua dutenak ,non ez baitiozuete nehola ere kenduko! Eta hitz hauk irakurtzen badituzte, harrituak egonen dire nola katoliko batek ez dituen gauza miragarri hoik sinhesten.

Katoliko batek sinhetsi behar du Jainkoak gauza miragarriak egin detzazkela, eta egiten ere dituela.

Bainan holakoek, gertatzen direlarik, frogatu behar dute, sinhetsi baino lehen. Haurkeria bat da, holakoetan, entzun edo irakurtu guzien sinhestea.

Guziek egin behar duguna da galdetzea Jainkoari lagun gaitzan, eta entzun ahalik lasterrena. Ez zait iduritzen gerla hau maiatzean bururatuko dela; bainan, gure Ama zerukoaren ilabethe eder hortan, ardiets dezakegu lehenbailehen burura dadin.

NOS AMIS

Nous reproduisons volontiers les lignes suivantes du « Courrier de Bayonne » :

Un Espagnol francophile qui ne s'en cache pas

Après M. de Urquijo dont nous avons reproduit, il y a quelque temps, la lettre éloquente, voici un autre Espagnol distingué qui ne craint pas d'affirmer que ses sympathies, manifestées au cours de fréquents séjours au Pays Basque, nous restent fidèles dans l'épreuve.

Il s'agit de Monsieur l'Abbé de Azkue, professeur de langue basque à l'Université de Bilbao, et auteur célèbre du *Dictionnaire-Trilingue* (Basco-Hispano-Français que tout bascophile sérieux possède dans sa bibliothèque.

Sa lettre a été adressée à M. de Saint-Jayme, Conseiller Général du Canton d'Iholdy, qui l'a reproduite dans le « Journal de St-Palais ».

On en admirera la tournure élégante, le ton enjoué et si spirituel... qu'on a quelque peine à croire que son auteur n'est pas Français.

Et cela seul suffirait à démontrer les affinités de l'esprit des deux peuples de race latine :

Cher Monsieur et ami,

Submergé d'occupations, je n'ai pu mettre à vous répondre autant d'empressement que l'eussent mérité l'amabilité et la franchise de votre lettre.

Que vous êtes de votre pays, avec ses qualités et ses gentils défauts! Et j'en suis à me demander à quel cerveau Français est imputable l'enfantement de ma féroce gallophobie!

La vérité est que la lecture de la noble lettre de notre cher et distingué ami M. de Urquijo m'a procuré un tel agrément que j'en ferais miens, très-sincèrement et le fond et la forme!

J'ajoute que je n'ai jamais dissimulé mon admiration à l'égard de votre belle nation; ce sentiment s'élève jusqu'à la reconnaissance quand, en ma qualité de prêtre, je considère son rôle Religieux à travers les Ages!

Comme linguiste et musicien, je m'incline devant sa belle Histoire, les magnifiques floraisons de sa Science, de sa Littérature de sos Beaux-Arts, de tout ce qui constitue les Progrès de l'Entendement Humain. Et je ne puis que souhaiter la continuation du rôle dévolu par Dieu à la France à la fois Evangélisatrice et Foyer Intellectuel toujours vivace!

Quant au Pays-Basque Français, j'ai la prétention de le connaître aussi bien que l'un quelconque de mes compatriotes Basques de ce versant Pyrénéen, et pour ce motif même, j'ai conscience de l'affectionner si fraternellement qu'à partir du mois de juin prochain, date à laquelle les vacances scolaires me permettront de quitter ma chaire Universitaire de Bilbao, je suis prêt, si cette horrible guerre sévit encore, à remplacer, avec l'agrément de S. G. Mgr l'Evêque de Bayonne, n'importe quel curé de campagne Basque-Français éloigné de sa paroisse par ses obligations militaires.

Il me serait agréable d'y prêcher, l'été prochain, notre Saint-Evangile en l'un de vos dialectes Basques, comme il m'advint (souvenir agréable) de le faire, en Ostabaret au mois d'octobre 1913.

Une pointe amicale en terminant :

Gardez-vous de la « gallophobomanie » parasite virulent dont votre imagination exacerbée par un patriotisme enflammé exagère les méfaits; il serait piquant et... navrant que ce mal redouté devînt contagieux au point de vous gallophobiser vous-même!!! Ne serait-ce pas l'abomination de la désolation?

Agreez, cher Monsieur et ami, l'assurance de ma vive sympathie :

Abbé Resurreccion-Maria de AZKUE

Gerlarien berri

Sasoin ederra

Aphirilaren ondarrak emaiten dauku aro bat choragarria. Eskual-Herritik dembora gaichtoaren berriak ditugularik, hemen iguzkia nasaiki.

Orai artio bertzerik ginuen. Aste osoak uritsu joan dire. Tempestak ikusi ditugu hilabethearen lehen egunetan : haize, barazuz, ihurtzuri.

Horra zertako sasoina gibelago den Eskual-Herrian baino. Orai doazi hostoak kamporat, orai dire bazterrak pherdetzen hasi. Alhorretan gizon zaharrak soldado lerroen gibelean, ari dire iraulden, idiak lauzkaturik, lur mami gizenaren pikatzeko.

Ez dute gehiago beldurrik. Alamanak jinen zaizkotela berriz, buruilaren lehen egunetan bezala. Geroztik ehortziak dagozi hor, gero ta ahulago.

Laboraria lothu da berriz bere lanari; kanoien azantza izigarriaz eztu acholarik gehiago, eta ez du galdatzen, haste hartan bezala, gure errechimenduek atchikiko dutenetz. Iragan da lehengo laztura; bihotzak jarri dire deskantsaturik, eta guziak bitoria osoaren beha daude.

Osagarria

Hiruetan hogoi mila gizonen berri emaiten ahal dut, osasunez kestione. Hogoi bat kilometreren luzean, Baionatik kambora bezalatsu, atchikitzen dute beren saila. Han dire Baionako bi errechimenduak; Paue-ko biak ere, armada berean.

Ez da egundaino izan, guziak barne hartuz, orai bezalako osagarri ona gure soldadoetan.

Eritegiak hustu dire kasik oro, lerroen ondoan. Sukhar ustelarekin galdu ditugu zenbeit, negu huntan; bainan oraikotz gaitzak bere aldia egin du.

Kolpatuak

Eri guti balinbada, kolpaturik ez da gehiago gure eskualdean, bakhar batzu baizik. Ikusi behar da, sinhesteko, nolako deskantsua dugun hemen gaindi.

Orai artio bizpahirutan erran dutana, egia dago bethi : Alamanek ez dutela gehiago indarrik egiten guri buruz; kanoiak eta oro eztituak dituztela.

Bertzalde, lur lanetan ikasirik, bakotchak bere burua gain gainetik gerizatua dauka gure lerroetan, etzateko tokiak eta oro moldaturik lurpean, barnachko.

Tokiak ere laguntzen ditu gure Eskualdun andana bat, bereziki errechimendu batean, Alamanak baino gorago baitire patar batean; gu gaineko aldean, etsaia beherago, buruz behera jiten baitzaizko gure presentak.

Ez dire bethi hor egonak gure Eskualdun soldado hoik; dembora luzaz toki gaichtoago bat zuten zaintzeko : orai Charentes errechimendu bat dute han ezarria.

Erreketarik pausurat itzuli direneko, zalaparta ederrik derabilate. Batzu balun jokoan ari dire, Baiona aldeko batzuek ez baitute bertzerik gogoan eta zainetan.

Eskualdunak pleka, etche zahar batzueri buruz. Badut uste erreketan bezenbat kolpatu badela pausu egunetan, jokoan, karrosetan eta holako. Atzo azkenik ikusi dutan gizonak besoa hautsia zuen : « Nola gerthatua zautzu? — Leihotik eroririk! »

Ohea eta lur sagarrak

Urdandegi zahar batean, bide hegian, ari ziren bi Eskualdun pampaka, taula batzuekin. Bat Ainhoarra, *bezea* Beskoiztarra.

Sartzen nitzaiote. Chahakoak dilingo zituzten, hel menean. « Badoa lana? — Ba, ori, ohe tchar baten moldatzen ari gituzu. Baitugu gero « *zomierak* » eta oro! — Zer zirezte, hemen kokatu nahiak? — Egonaren buruan ohartu gira, luze doala mekanika hau; gochokiago izanen gira hor ondoko egunetan. Errazu eta... zer iduri zautzu gero, funtsez mintzatzeko? Ez ahal du gerla debru hunek iraunen menderen mende! — Nik uste ez duzuela zuen ohe berria hanbat higatuko. Pario bat egina dut aintzindari batekin, uztailaren leheneko toki hau hustuko dugula. Bainan Alamanak ere gure lurrari josiak dira zimitza bezala. Badakizue zer ari diren gibel hartan?... Largabistarekin ezagun dire bichkar batean iraulden, lur sagar eraiten! — Debruen urdiak! Lur sagar egiten! Ez ditüzte haatik berek milikatuko. »

Aintzina

Gu hola gaudelarik, bethi toki berean bertze batzu azkarki gudukatzen dire, iguzki partean, Lorraina-ko eskualdean.

Martchoko hilabethean egin ginuen oldar bat Champaña gainean, *Verdun* hiritik ezker. Aphirilean egin dugu bertze bat haratago, eskuimago, Verdun hiritik beherachago.

Alamanak hor sarthuak ditugu gure lurrean, *Saint-Mihiel* delako hiriraino,

Muthur, bat iduri du heien armadak toki hortan, gure bi lerroen artean sarthua, *Metz*-eko parrean.

Oraiko indarrak hor egin ditugu. Baitezpadako lana ginuen hori. Behar zen alde hartarik ere Verdun-eko hiriari deskantsua eman ,hirriskua urrunduz etsaiaren aztaparretarik khendurik gain batzu abantail handikoak.

Bazen hor bereziki mendichka bat, *Eparges*-ko herriaren aintzinean, Lorraina ordokiaren gakhoa. Alamanek egina zuten gain hortan izigarriko zitadela. Mendiehkaren hegal chutak lurpeko lanez gerizaturik, bospasei erreka lerro mitrallusaz eta gizonez betherik beren ustez sekulako zaukaten eskuetan.

Hilabethe batez han erabili ditugun lanak ezin sinhetsiak dire. Urhatsez urhats guretu ditugu bazterrak oro, zolatik gaineraino, aro tzarrenarekin, lohiaren barnean, irabaziak galdurik oldar berri bati lothuz, bethi aintzina, su izigarri baten erdian.

Alamanak soldado gaitzak dira. Holako tokian, bereziki, oro beren alde zituztelarik baitezpada lekuaren zaintzea gogoan emana zuten, ehun mila gizon gostarik ere. Beren mitraluseri gizonak estekatuak zituzten, burdinazko kadenaz, egon ziten han, itzatuak ,azken ezinbertzean ere, hil ala bizi.

Nausitu gira. Gudu izigarri horren berri dabitenek diote Frantsesen eskuetan dela geroa.

Nausitu nahi ginen; behar ginen nausitu. Horra bitoria handi bat, , urhats handi bat geroko handiagoeri buruz.

Ontsa gostarik ditugu holakoak. Ez ditake bertzela. Etsaiaren lehertzeak oraino lanak emanen ditu. Bizkitartean, egiazko bakea nahi balinbadugu, hortaratu behar gira.

Hemen direnek ez dute nahi berriz hasi, ez eta beren haurrak ikusi gisa hortako ifernuan sartzen.

Bururaino

Presuner bat ikusi berria dugu, Alaman eskolatu bat, gure lerroetarik treinerat zeramatela.

Itchura ederrak zituen oraino. Egunean aphairu bat ona egiten omen dute soldado Alamanek; aratsean, ogi eta arno.

Gezur edo egia, erran du bertzalde kuraje handitan daudela bethi; Rusoak lehertu ondoan lothuko direla berriz guri buruz, ez badugu arte huntan bakea galdatzen.

Arrapostua ukhan du laster, ez dakitela gure berri; oro bihotz eta gogo bereko girela; lana nahi dugula bururatu, eta eginen dugula, behar den demborarekin, Alamanak lehertu artio.

Orduan gizonak, burua aphaldurik, erran du, bere gisako laztura batekin : « Gisa hortan, akhabo gira !»

Zer eskas

Gauza jakina da, gerla hunen hastean ez ginela prest. Zer gisaz, eta noren hobenez, ez dago guri hortan sartzea.

Frantsesak atheratu dira hinka tchar hortarik, mirakulu handi bat baitzauku nola ez gituzten etsaiek garbitu lehen egun lazgarri hetan. Atheratu gira, Jainkoak lagundurik eta gizonek ere, beren batasunaz, soldadoek beren kurajaz, aintzindariek beren zuhurtzia handiaz.

Bitoria osoaren irabazteko handik harat, gauza bat ginuen eskas : dembora.

Etsaiak berak eman dauku dembora, lurpean sarthu den orenetik. Demborak, emeki emeki, ezarri gitu prest, edo bederen ezarriko laster, ez balinbagira oraino hartan.

Kanoi handiz badugu hastean baino *zazpi aldiz* gehiago. Agertuko dire berri zombeit oraino.

Kanoien hazkurria ginuen eskas bereziki. Hastean baino sei aldiz gehiago moldatzen dugu. Hein hori ez da oraino aski. Gerlako ministroak berak errana du seietarik bederatzietarat heldu behar girela.

Aintzindari hanitzen arabera, gerla hunen trenkatzea kanoien hazkurriak du egin behar. Zoinek ere fornitzen ahalko baitu gehienik, eta hura geldituko da nausi.

Anglesen aintzindari lehenak gauza bera dio bethi. Horra zertako lan hortan ari diren azkarki bazter guzietan.

Bainan ez dire langileak aski. Behar da geia. Bolboratik hasirik, kobre eta bertze zer frango sartzen da hor. Guk oro gure ditugu, itsasoari esker. Alamaniak ez.

Ezagun da jada aspaldian chuhurtuak dituztela.

Biziki gehiago ari gire kanoiekin, bereziki egun hautan. Ez ditugu gehiago uzten hatsaren hartzerat.

Arrapostua bakhan emaiten daukute. Ez erran ez zaiotela balio. Ez erran geroko biltzen ari direla. Biltzen ari dire, segur; bainan anhartean ez dute arrapostuaren emaitekorik.

Baitezpadako gauza da gerla huntan, kanoien mintzaraztea, etsaia kitzikan ari delarik, ichilarazteko, eta bereziki soldadoeri bihotzaren altchatzeko.

Ez du deusek hala hausten soldadoaren kuraia, erreketan, nola bizkarraren gainean senditzeak kanoi etsaien hichtua haren aldeko kanoiak mutu dagozilarik.

Beraz oraikotz gaina dugu hortaz eta ez aantz hori dela guzietarik lehena.

Gainaren ukhaitea hein bat ez baita ordean aski! Etsaiaren lehertzeko kanoiak pazkatu beharko ditugu nahi duten Lezenbat.

Aireplanak

Ez dugu ikusten hanbat aireplan etsai gure gainean. Agertzen diren bakharrak, goizean goiz jin dire, ar i puntan, gure chori gizonak oraino lo zaudelarik.

Batek aurdiki daizku herri baten gainerat zortzi « bomba » lerro lerro. Ez da halakorik, lo egile handi batuen iratzararazteko.

Tirari tcharrak dire gain hartarik Alamanak. Bethi huts egiten dute. Ez dut ikusi bat baizik chuchen ari. Egun berean egin zituen bi itzuli. Bietan norbeit atzeman, edo zerbeit.

Frantsesa eta Alamana biak agertzen direnean, errech da jakitea laster zoin den Alamana, nahi bezen gora izana gatik... Aintzinean doana da bethi Alamana, ihes bere lerroen gibelerat...

Aphirilaren 19an

J. S. P.

Eskual-Herri

BAIONA. — Deusek ez du hala pizten bihotza gerla egun hautan, nola ikusteak lan handi batzu, gerla aitzinean hasiak, gero utziak dilindan, gizon eskasez eta, erran zitaken, diru eskasez ere; eta geroztik hunat berriz lothurik, hurrikichko, bainan ederki doazila.

Hemen gelditu langilentzat ogiaren irabazpide, ez baita guti, eta oroz batean seinale, konfiantza oso daukagula geroari buruz.

—

Lan handi, gerla bethean, aitzina doazinetarik bat hemen dugu, Baionan, *Sant-Ispiritako* zubi luzearen ondotik, *Mayou* deithu laburragoa, eta luze arau, puskaz zabalagoa.

Lan bat ederra, gerlan ez bagine bezala deramatena; lan gaichtoena eginik, ondarreratzen ari dute. Aldetik iragaiten nizen guziez gogoratzen zaut, bethi bera : « *Zoin eder izanen diren gure soldado gaizoak, gerlatik heldu, Baionaraino treinez, alegerarik agian, handik hiriko-etche aitzinera, lerro-lerro, zubiz-zubi.* « *Vive la France! Vive l'armée!* »

—

Espainiako karrikan sartzea ere ari dute zabalduz edertzen biziki, harrasi zahar lodi beltz hetarik puska bat aurdikirik, ohiko « porte d'Espagne » hura utziz osorik, orhoitzapentzat, atheratzean ezker, bide berriak bazeramatzala Miarritzeko bidera chuchen.

—

Semenario Handia ere baderamate ederki. Atseginekin irakurtuko dute apezgei eskualdun gerlan direnek, lanik handiena eginik, azken teilen pausatzen ari direla, gaitzeko aro onarekin, langileak.

Barne zolatzeak eta garaitikoek oraino galdatuko dute dembora; bainan atherbeko lana zalhuago doa, euriak ez desuek gibelatu gabe.

Merezitua ukhanen dute, gerlatik lekhora, ichtudiant soldado gaizoek, apeztasunera hel artinoko atherke bat ona.

Zerbeit gostaia ere izanen baita, bururatzen denean lana, kaperak eta oro. Hura ezta orajno hasia. Noiz hasiko duten eztakigu. Behar da ahal.

—

Zerbitzari on bat galdu du Baionako katredaleak : *Marcel Laco*, eliza hortako chantre eta sakristano zena hil, da joan den asteart arratsaldean ; ehortzi, ortze gunean.

Gorputza hilaren sor-herri Halsurat ereman dute.

Chantre guti joanen da Eskual-herritik, hunek bezen ederki Jainkoaren etchea aphaindurik bere kantu ozen gozoaz.

Beretter adinetik hasi eta behin Halsun, gero hamalau urthez Cambon egonik chantre, hogoi urthe zituen Baionan zela.

Behingo gizon eta kantari ginaukana, ereman du gaitz labur batek, 55 urthetan.

Semeari gerlarat heldu diote aitaren hil-berria.

Jainkoak berekin duela bere boz ederraz bertze onik gure jakinean zuen gizon ona.

—

MENDIONDO. — Soldadoen ohorezko medela eman diote Jean-*Pierre Cyrille* herri huntako seme bati. Infanterian du egin bere zerbitzua.

Medelari eratchikiak dire hitz hauk : « *Très bon soldat grièvement blessé* ».

Hau othe da, oraino etcherat ethortzekoa, eritegi batean daukatena begietako bichta osoa ez bada, ahal guzia beiratu nahiz, aitari eman baitio Hazparneko Jaun Merak, semeari buruzagiek igorri medela?

Armand Ainciboure errezerbista, *Pierre Suhas, Pierre Etcheverry Pierre Hirigoyen*, territorial-ekoak ere ohorezki aiphatuak izan dire, gerlako eginbidea ederki betherik. Biba zuek, eskualdun soldado onak!

—

HAZPARNE. — Zazpi urtheko behor bat, bi urtheko ume batekin, berriz ernari handi, ja erdia ez balinbada ere, galdua da.

Uhaletik dilindan du behorrak ardi joare bat. Biek ozka bedera eskuineko beharrian.

Abere galdu ama-ume horien berri lakikenak hel dezala othoi hitz bat Hazparne Peña kartiereko *Beso-motchari*.

—

Berri hau joan den astean ukhan dugu Eskualdun-ean ezartzeko, bizpahiru oren berantegi; astezken arratsaldean eguerdi irikotzat ja lan guzia eginik *la censure* deithu jaun biltzarrerat igorria ginuelarik.

Gerla hastetik hunat, egun bat goizago hesten da gure lantegia; eta *censeurs* direlako jaun heien nahiz oraino egun erdi bat goizago. Gerlan gerlako gisa.

MILESKER

Amerikano batek erakutsi dauku letra bat, diona: Uruguay-ko Eskualdunek nahi ukan dutela egin *Argentina-koek* bezenbat heiek bezala igorriz, elgarren artean bildurik, gerlako zaurien eztitzeko, Eskual-herrirat, 25 mila libera.

Iholdiar andere on batek, *Graciana Arangoitz de Argul* deithuak — aspaldian *Montevideon* bizi delarik, ez baitu oraino ahantzi sor herria — bildu ditu, etchez etche galdeka ibilirik, gerlak jo eskualdun familientzat eske — *hogoi-ta bortz mila libera hoik*.

Berak dio hegoaldeko Amerikan dirua hoin chuhur delarik, zerbeit dela hori. Ontsa pulliki erraiten baitu, *hanitz* ez bada, ez dela ere, *guti « no mucho ni poco »*

Biltzale igorleāren arabera, beharko da soma hori zathikatu Eskual herriko hameka kantonamendu hemen izendatuen artean, orori bardin: Ustaritze, Doniane-Lohitzune, Ezpeleta, Doniane-Garazi, Baigorry, Hazparne, Yholdy, Donapaleon, Maule, Atharratze, Baiona.

Sos horren emailen izenak agertuko dire liburuchka batean, gerla huntan zorigaitzak hunkitu Eskualdunek irakur ahal ditzaten itsasoaz haraindiko eskualdun haurride laguntzaleak nor eta nor izan diren.

—

ZALDI EROSLEAK

Tropetako zaldi erosle Tarbetarrak Baiona *Sant Andres*-eko plazan izanen dire, maiatzaren 19an eta 20an, goizeko 9 orenetan; 19an lau urteko zaldien saltzea; 20an, adinekoena.

Hemezortzian jaun berak Donapaleon izanen dire, goizeko 9 orenetan, orobat zaldi erosteko, elizako plazan.

ZER ETA ZER

HAMALAU KASKO N

Baiona huntan, gerlaren kariala ikusten ez duzun soldado gei eta ohi, gazte eta zahar motarik ezta; batzu hola, bertzeak hala.

Hastetik hor harat joanak joan, eta geroztik oraino hainbertze, adin guzietako, bederatzi hilabethe huntan, bethi oraino eta bethi aitzina nonbeitik hunat heldu gizonak, alde orotarik, multzoka.

Ikusirik baizik ez ginuen sinetsiko, bazela Frantziako zokhoetan hoinbertze gizon begiko, itchura ederraz bertzerik dutenak, segurki halere.

Jin berrienek ukhanik ere bihotza handichko, ageri urhatsetik eta orotarik, badutela zain eta odol; eztaudela ukho eginbidearen bethetzeari.

Eite bereko dire gehientsuak; bakhar zonbeitek itchura hitsa, ikusteak bere hala gogorat emaiten dautzula : « Hor cheko hori eta hancheko hura agian erreformatuko dituzte, gaicho gizonak! »

Batzu ahulez higatuz, hanitzak zainhart ginharritsu azkarrez, begietarik ezin utziak dire. Behin ikus eta ezin ahantziak zenbeit, banazka ala hamarnaka; heien begitarte onak jarraikitzen zaitzu egun eta gau.

Iragan astekoa dut orhoitzapen hunkigarrienetarik bat, hau : *Eskualdunaren* lantegian sartzera nindoalarik, *Bourgneuf* karrika guzia zabalean hartzen zutela heldu, beren puskuntziak eskuan, erleak bezala multchoan erlgarri hurbil, — ah! zer gizontze begiz jatekoa !

Zonbat ziren kondatzea etzen errech; hain zoazin tinki eta urhats bizian! Burua chut eta bulharrak aitzinerat; etcheko jaunzturan oro eta ja soldado bezti balire bezen trebe zangoen gainean.

Iguzkiko ala itzaleko, bazen guzietarik; bainan larru ona, sanhoa orok.

Bat, biga, hiru, lau, bortz, sei, zazpi, ...hamalau, khondua begiz jali nueneko, aditzen dut gibelekoetarik bat bertzer erraiten gora-gora : « Allons toucher ia main à ce brave curé ».

Ahotik jali dueneko, nik : « Eh! qui vous a dit que je suis brave? — Et vous, pourquoi vous nous regardez comme ça, qu'on dirait qu'on se connaît? — Voir si c'était des Basques. — Il n'y a pas que les Basques seulement de braves, non, Monsieur le curé. — Vous aussi donc alors. — Eh! oui, té! »

—

Oro batean mintzo ziren, puskuntziak, brau, orok lurrean pausaturik. Bizpahiru minotaz erran ahalak elgarri erranik hanche, kaskoinak zirela, oro herri bereko, edo auzo hurbil, oro aita familiako jainkotiarrak; elgarrekin hor harat joaiteaz oro kontent, beiratuko zutela elgar eta kuraiastatuko.

Puskuntziak orok lurretik altcha, au commandement *un, deux, trois, arche* !

Urruntzearekin batek agertzen daut liburutto bat sakelatik : « Nous avons ça tous ». — *Le manuel du soldat* edo zerbeit holako du izena. Han dituzte izkribuz beren eginbideak Jainkoari, Herriari, elgarri buruz.

Lagunek, gibelerat itzuliz oihu egiten diote, jarraik dadin. Eta orok, azken hitz : « Bonjour, M. le curé, priez pour nous et pour nos familles ».

Hunkigarri zen egiazki eta bihotz altchagarri.

ZAZPI ESKUALDUN

Zazpi ala sei, zin egiteko, ez nakike chuchen; noiz nola naski.

Begitarte oneko gizon gordin pizkor batzu hauk ere, salbu bat edo bi, bertzeak baino akhituchago; ez balinbadira eskualdunak ,hauk bederen, beren *barneko* motch mahungadunekin, kaskoina naiz nihaur.

Ustariztar, Ancildar, Eiheralarretar, Larzabaldar, Mendibetar, Esterenzubitar (bat ahanzten badut, barkha).

Kara oneko gizonak oro, nahiz baduten halako aire zilin bat, bereziki batek, bi eskuak sakelan erabilki, dembora ezin garhaituz, beren etcheak eta etchekoak bethi gogoan; artho egin behar gorri hek eta oro han, emazten eta haurren gain.

Nork erran gaur edo bihar gizagaizoeri, doazila jin bidez etcherat, eztela gerlarik gehiago, irabazi dugula, zer jauzia eta zer irrintzinak!

Eta zer kobla lerroa lezoken eman berri onaren *karleari*, batek!

Bainan eginbidea hor deno, hari daude. Ilhuntzirietan *izil kuslen* ardurenik, bethi berak elgarrekin, bat goiti-beheiti, katredal eliza sahetsean benedizioneko ez bada, arratseko othoitzaren egiteko harat hurbilduak.

Holako batzuekin bizpahiru aldiz solas eginez geroz, hartzen da elgar, eta gogoratzen ere ba, eni ez bada zuri, kampoan chutik baino hobe litakela jar[illegible] donean, ezpainen *kotsia* bustitzeko baizik ez balitz ere.

Eztut bada atzo banda guziarekin buruz buru egin hiriaren bertze hegian, hango elizari hurbil! Sartzekotan ziren araiz, ororekin atchikitzea on baita, eliza eta ostatu.

« Agur, jaunak. — Bai zuri ere. — Zuek bethi, elgarrekin, ba, haatik. — Badiziu elgarren beharra, ez osoki zozotzeko, hemen alfer hola, gogoa mendi alde hartan dugularik! — Eta alaadere, nun duzue Esterenrzuby? — Garako alde hortarat joana; bere egitekoz. — Ez arraintzarat? — Ez, jauna; heldu dela berehala erran diaukuzu. Igurikitzen ahal bazinu, hain chuchen, errana diaguzu, hitzño bat balukela beharri chilora zuri erraiteko. — Etzit aizinarik gaur; errozue goraintzi.

(*Segida gerla ondoan*)

Ziberoan

SOKHORRIAK

Beharrunantari lagungoua egitia bethi obra houn bat da; eta egiten dianak, merechimentu handiak dutu :

Goure soldadouen emazter eta aitamer sokhorri egitia ere hatsarrez ezinago obra houna eta baliousa zen, bena gerouago eta gehiago ari da itchousten, zeren den nouizik behin zuzenik gabe galthaturik eta beste hanitch aldiz, egiazki zuzenez galthatzen dianari arrafusaturik.

Eta, egiazki nourk luke zuzena *Allocation* deithu sokhorri horren hounkitzeko?

Langiliak sodado phartiturik dutien familiek orok, noun ez dien aski aberats gerlak diraieno arrandaz bizitzeko.

Badira hanitch laborari etche naousia eta michkandiak soldado beitia, eta emaztiak eta haourrak etchen.

Zer profeitu du gisa hortako laborari etche batek hamar mila libera intresian ukhenik, ez badutu uda hountako lanak eginik? Dagun ourtheko, gabeziari buruz da.

Badira ere hargatik beste etchetto zoumbait gizon bat bera soldado denik, beste bat edo biga laneko hounak etchen, eta halere sokhorria galthatzen beitie,... eta ukheiten.

Hori zuzenik gabe galthaturik, eta justiziaren kountra emanik da.

Ala igante ala merkhatu, jentia biltzen den lekhu orotan ez da beste kombersarik, gaizki phartitu sokhorri horiez baizik.

Uduri zaña holakouak eta halakouak, haiñ aberats dielarik, amouina galthatzen!

Eguriozu! Bere doiaren egiteko houn ez denak eta lagunik ez dianak, ez dizu behar phentsatu sos mouchi bati so-egitez gerla demboran bizitzia; badizu zuzena emaiten ahal dianari sokhorri galthatzeko; ezi lanetik bizi dena, langilerik ez badu, deus ez direnen herrokala erorten da.

Bena beste horrek hirour langiletarik biga etchen, eta eskia hedatzen halere, ez deia otsez bere aizo gizonik gabe baratia beno aberatsago?

Holakouak behar lutukie herrietako aitzindariek eta gaiza horren phartizale direnek bere herrokan ezari.

Erranen deitade jaoun mera horiek nahi diela orori khaousitu : galthazaler orori nahi deiela ukhen erazi soldata hori.

Ez da hori aitzindari justo baten mintzatzeko imanera.

Ez dieia ikhousten langiliak noun dien eta noun ez?

Ments dien lekhian ez deia ordari baten phakatzeko sosa nesesari, etchenkouak bere bizia arichkatzen dianaz gañen kartielaren sustengatzeko?

Othoi arren beharrunantak eta behar gabiak hobekiche pharti ditzen, galthegiten deiegu aitzindari horier; etchiaren ez barnekouen koloriari so-egin gabe, beharruniari berari so-egin dezen; gerlaren medioz oro adichkidetu beikira, bere kholkoko ez dutien zuzentorrak ere ountsa lagunt ditzen, amorekatik eta Frantziaren haourren ororen algarrenganat ara-juntatze hori goure kartielian ere ouhourez hedaturik izan dadin.

LIGINAGA-ASTUE

Ez ahal da bizizale grado bi herri tchipi horrik bezala gerlak hounkirik denik Frantzia guzian.

Badira egundara bait hamabost soldado hilik ouhourezko lurrian.

Latsaga-ko semia, *Etchecopare*-koua, Salaberi-koua, *Elichabe*-koua, *Egurbideborda*-koua; *Ezkurbe*-ko bi semiak, *Irigone*-koua *Eskapilaborda*-koua Salaberiborda-koua, Chouritegui-koua, *Inchauspe*-koua Idiarte-koua, *Ulhuralte*-koua.

Dudarik batere gabe, nourk bere familietan dolu handia ezari die gaicho mothiko gazte horriek; bena dudarik gabe ere sekulakoz ouhouretan ezarri dutie bere sor lekhiak.

Ezin aski laidatuzko gizon gazte herroka eder horren izeneak merechi lukeie ondokouer igaran-erazirik izatia.

Hartakoz behar lutukeie urhe hitzetan izkiriba-erazi Astuar horien izenak Phikozar zolan orano chuti dagon lehenagoko ihizlari noublen bil-etchian, Ahargorik aisa bil leitian harri phikatu eder batetan.

Liginagarrenak aldiz ber gisan Ahargorik eraits leitian harri pheza eder batetan, zouiñ sekulakoz segurta beleite kharrikaren erditan.

Bere kartielaren sustengatzeko odola ichouri dienek, merechi die ez guturik izatia.

LES OBLIGATIONS DE LA DÉFENSE NATIONALE

Les Obligations de la Défense Nationale sont actuellement émises au prix de 95 fr. 05. A partir du 1er Mai le prix sera de 95 fr. 25 : la différence représente le montant des intérêts d'une quinzaine, les souscripteurs ne versant leurs fonds que quinze jours plus tard.

Les souscriptions sont reçues : à la Caisse Centrale du Trésor, à la Banque de France et dans ses succursales, chez les Trésoriers Payeurs généraux et les receveurs des finances, chez les percepteurs, et en outre, pour les souscriptions en numéraire chez les receveurs des contributions indirectes, de l'enregistrement et des Douanes, dans les bureaux de poste.

M. DÉCHAMP, *Spécialiste breveté*

Garantit la guérison en quelques semaines des

HERNIES

Descentes de Matrices, Varices, Varicocèles, Hydrocèles, Obésité, etc.

ATTENTION ! M. DÉCHAMP, 135, Boulevard Magenta (anciennement : 39, avenue de St-Mandé, PARIS, est le seul spécialiste ayant inventé un nouvel appareil tellement supérieur à tout, qu'il garantit la guérison par écrit. Donc ne pas confondre et venez voir le merveilleux appareil "NORMAL" breveté S. G. D. G. sans ressort dorsal et sans sous-cuisse.

Cette nouvelle découverte de M. Déchamp lui a valu le titre de " Providence des Hernieux ". M. DÉCHAMP facilite le paiement après guérison. Consultations gratuites de 9 à 5 h.

DEMANDER à M. DÉCHAMP son intéressante brochure : La Vérité sur la Hernie, elle vous évitera des déboires et dépenses, elle est envoyée discrètement gratis.

TARBES, Vendredi 30 Avril, Hôtel Terminus.
DAX, Samedi 1er Mai, Hôtel de l'Europe.
PAU, Dimanche 2 Mai, Hôtel de la Poste.
BAYONNE, Lundi 3 Mai. Hôtel Moderne.
MONT-DE-MARSAN, Mardi 4 Mai, Hôtel des Ambassadeurs.
ARCACHON, Lundi 10 Mai, Hôtel de la Côte d'Argent.

Maladies des Yeux

Le docteur Laignier a repris ses consultations tous les jours de 9 h. à 12 h. 9, Rue Dalbarade, Biarritz.

Maisons Recommandées

BAYONNE

BANDAGISTE-COUTELIER : Giral, Lessertot, sr., 5, rue Argenterie.
BIJOUTERIE : Articles de religion, Diharce 3, rue Argenterie.
CHARBONS ANGLAIS : Worms et Cie, armateurs, 8, Allées Boufflées.
CHAUSSURES : Lorda, 17, rue Port-de-Castets
CHIRURGIEN-DENTISTE : Iratchet Cantero, 1, rue Poissonnerie, face aux Halles
EPICERIE EN GROS : Maison Urtasun, rue d'Espagne, 10-12. Téléphone N° 1.43.
GRANDS MAGASINS du PRINTEMPS, rues Port-Neuf et Gambetta.
MEUBLES : Maison Cassiau, 2, Quai Galuperie.
QUINCAILLERIE : A. Soulard, rue Argenterie.
TIMBRES-PRIMES de l'Union Bayonnaise et Régionale à réclamer dans toutes les Epiceries.
TEINTURIER-DEGRAISSEUR : Maison Lague, 1, rue Lormand, Bayonne.
THIERY AINÉ & Cie **VÊTEMENTS** pr Hommes Jeunes Gens et Enfants.
VINS ET SPIRITUEUX : Graciet, rues Sabaterie et Vieille Boucherie.

AMERIKETARAT

Ameriketarat joan nahi dena, BARBIER, Doniane Garazikoari adreza dadila. *Agent d'émigration* bezala ezagutua da Gobernioaz. Eta nola, egun guziez behar baitu bordelerat bere komisionentzat, *untziraino* lagunduko edo laguntaraziko ditu pasaiantak.

HOTEL DES BASQUES & DU BEARN

Etienne ROUDET, 217, cours St-Jean

BORDEAUX

Ene etchea garatik hurbil, ehun metretan gurenetik, ongi ezagutua da AMERIKETARAT joaiten diren guziez; hemen segur dire izaiteaz beren harat hunaten egiteko behar dituzten, errechtasun guziak!

Janak eta kamberak merke; jenden ahalaren arabera.

Porcelaines et Cristaux

MAISON FONDÉE EN 1842

Jules LACHIQUE

BAYONNE

GROS — DÉTAIL

Jules MONDRAN

2, place Notre-Dame, BAYONNE

Oihaleria mota guzietarik

ORDTAN BAINO MERKEAGO

Le Gérant : E. DUBOURDIEU.
Bayonne, Imprimerie Foltzer.